

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure proiektuak ondo funtzionatzeko, garrantzitsua da jendeak ezagutzea eta gero bezeroak gurekin geratzea. Horregatik, bi alde landuko ditugu: bezero berriak lortzea eta ditugunak zaintzea.

1. Nola lortuko ditugu bezero berriak?

Lehenengo pausua da jendeak jakitea zer egiten dugun. Horretarako, sare sozialetan asko mugituko gara: Instagram, TikTok eta Facebook erabiltzen ditugu, batez ere gurasoak eta gazteak daudelako han. Bideo eta argazki politak jarriko ditugu, jostailuak nola biltzen ditugun eta nola berritzen ditugun erakusteko.

Juguettos dendetan kartelak, pegatinak eta informazio-orriak ere jarriko ditugu. Horrela, jostailuak erosten edo saltzen doazen familiek berehala ikusiko dute gure sistema, eta bertan utz dezakete erabiltzen ez dituzten jostailuak. Kartelak oso argiak eta errazak izango dira, denek ulertzeko modukoak.

Bestalde, gure herriko eta inguruko ikastetxe, ludoteka eta udalekin ere hitz egingo dugu. Aurkezpen txikiak egingo ditugu ikastetxeetan guraso bileretan edo aste kulturaletan, jostailuei bigarren bizitza ematearen garrantzia azaltzeko. Horrela, familiek jakingo dute guk egiten duguna ez dela soilik negozio bat, baizik eta, gizartearentzat eta ingurumenarentzat ona den zerbait.

Noizean behin, azoka edo ekitaldi txikiak egingo ditugu kalean. Bertan, berritutako jostailuak erakutsiko ditugu eta jendeak nola funtzionatzen duen ikusi ahal izango du zuzenean. Horrelako ekintzak oso lagungarriak dira gertutasuna sortzeko.

2. Nola mantenduko ditugu gure bezeroak?

Bezeroak lortzea garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da jada gurekin daudenek jarraitzea. Horregatik, sistema erraz bat erabiliko dugu:

- Puntu-sistema edo sariak: Jostailuak Juguettosera eramaten dituzten familiek puntu edo sari txikiak jasoko dituzte. Puntuak, gero deskontuak egiteko Juguettosen edo gure dendan edo jostailu berriren bat hartzeko erabil daitezke. Jendeak gustuko du horrelako gauzak, dirua aurrezten duelako.
- Arreta ona eta pertsonalizatua: Gure dendara datozen familiei lagunduko diegu ze jostailuak berrerabili daitezkeen eta zeintzuk joan behar diren birziklatzera.
- Kalitate ona eskaintzea: Gure jostailu guztiak ondo garbituta, konponduta eta egoera onean egongo dira. Horrek gurasoei lasaitasuna ematen die, jostailu erabiliak badira ere kalitatezkoa jasoko dutela badakitelako.
- Salmenta ondorengo laguntza: Jostailu batek arazoren bat badu, berriro ekar dezakete eta guk konpondu edo trukatu dugu. Horrek erakusten du gure proiektua serioa dela eta ez dugula "bota eta listo" egiten.

Hau guztia eginez, gure helburua da bezeroak gustura sentitzea eta berriro etortzea. Gure proiektuaren ideia ez da soilik jostailuak saltzea, baizik eta familiei laguntzea, dirua aurreztea eta ingurumenari mesede egitea.